

EUSKAL HERRIKO KARMELDARREN HISTORIA EUSKARAZ

Karmel aldizkariaren zenbaki honekin bateratsu sartuko zen inprimategian historia-liburu hau: *Karmeldarrak Euskal Herrian. Nafarroako San Joakim karmeldar Probintzia (XIII-XX. mendeak)*.

Aurkezpenean hau dio: “lehen-lehenik azpimarratu behar dut, lan hau **Antonio Unzueta, Angel Fernandez Mendiola** eta **Julen Urkiza** Karmeldarrek erdaraz burututako beste estudio askoz zabalago baten laburpena dela (*Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria, siglos XIII-XX*, 2005ean argitaratua). Historia honen laburpena Julen Urkizak egin du, eta itzultze lanak Luis Baraiazarrak”.

Karmeldar Probintzia honen sorrerako hirugarren mendeurrena betetzeko zenean, urtebete aurretik 1706. urtean sortu baitzen, argitaratu zen gaztelaniazko liburua. Hasieratik genuen, obra hau laburturik euskaraz ere argitaratzeko asmoa, baina zorra kitatu orduko bost urte igaro zaizkigu ia ustekabeen...

Barrukoentzat (Karmeldarrentzat) ispiluan begiratzea bezala da; gure arbasoen, antzinakoen, herenegungoen, atzokoen eta, distantzia pixka bat harturik, gaurkoen ibilbidea irudikatzea, gogoratzea, berregitea. Idazten ez dena galdu egiten da denboraren amildegiak irentsita. Horregatik historia honen egileek

idatzi egin dute, baginela, bagarela eta geroan ere izan nahi dugula adierazteko. Lehen ez bezala, oraingoan, euskal jantziaz agertzen dugu. Halaxe zegokion, Nafarroako San Joakim Probintzia hizkuntzaz elebiduna baita.

Edukia labur bilduz edota, ustez, gure irakurleentzat azpi-marragarrienak soilik bilduz, hau agertzen zaigu:

1. Jatorria eta espiritua (XII-XIII. mendeak)

Israelgo Karmel Mendian sustraiak dituen Ordenaren lehen urratsak kontatzen dira; Andre Mariaren babespean, Elias Profeta imitatuz eremutar bizitza eginez lehenengo, eta San Alberto Jerusalemgo Patriarkak idatzi eta emandako Erregelapean gero.

2. Karmel Teresiarra. Santa Teresa Jesusena eta haren espirtu berria

La Encarnación deritzan monasterioan aurkitu zuen giroa eta Jainkoarekin harreman estuan, Hark barru-barrutik eraginda, sortu zitzaion misio karismatiko eta apostolikoa kontatzen dira:

“Harentzat eta haren geroko misiorako bere barnean garratzen hasi zen espirtu-bizitza zen garrantzitsua. Karmeldarretako bokazio orokorraren barruan, Teresak gero eta dei biziagoa sumatzen zuen barne-bizitzara, Jainkoarekin harreman min-minak izateko bokazio bere-berea. Ia ohartu gabe hasiera eman zion otoitz-bide luzeari, eta Jaunarekin maitasunez hainbestetan elkartzeak Jainkoaren esperientzian maistra bikain bihurtuko du”.

3. Nafarroako San Joakim Probintzia

“1706an sortu zen Probintzia. Urte horretako apirilaren 23an bildu zen Pastranan Espainiako Kongregazioko Kapitulu Jenerala. Hauteskundeak egin ondoren, Gaztela Zaharreko San Elias Probintzia banatzeaz hitz egin zen eta hartatik bereizitako parte batek Nafarroako San Joakim izena hartu zuen; horrela jaio zen Kongregazioaren bederatzigarren Probintzia.

San Joakim izena santu honi Iruñeko Karmeldar Oinutsetan zioten debozio gartsuagatik izan zitekeen, hura baitzen Probintzia berriko komenturik zaharrena.

Probintzia berriari hauek eman zizkioten: Iruñe, Burgo de Osma, Corella, Tuter, Peñaranda de Duero, Kalahorra, Burgos, Lerma, Logroño, Lazkao eta Markinako komentuak eta Bilbo eta Soriako babes-etxeak. Horrez gainera, garai hartan Moja Karmeldarrak Ordenaren eskumenean zeudenez gero, mugape berri horretan zeuden mojen komentuak hauek ziren: Soria, Burgos, Iruñe, Logroño, Kalahorra, Lerma eta Corellakoak. Zumaia eta Donostiakoa Elizbarrutiko Gotzainaren eskumenean zeuden”.

4. Frantsestetik klaustrotik kanporatuak izan arte

Erraz irudika daitekeenez, galera handiak izan ziren komentutan, bai pertsona aldetik eta bai ondasun aldetik:

“Hainbat seinaletan sumatzen zenez, Espainiako Kongregazio osoa gainbeherako aroan sartu zen. Desegite-seinale larriak agertzen zituen gizarteak kutsatu zituen guztiak. Laster etorriko ziren seinale haietatik gertakari galgarriak: frantsesak sartzea, ideia zatitzaileen irakina, komentuei su ematea eta erlijiosoak hiltzea, klaustrotik kanporatzea”.

Gainbegiratu arin batez ikusiko ditugu hainbat komentutan egindako triskantza eta gehiegikeriak:

“*Logroñoko* komentua, Castaños Jenerala 1808ko urrian gal-tzaile irten ondoren, Frantziako tropek suntsitu zuten, eta bi urte geroago lautua eta oinetxe bihurtua izan zen. *Kalaborrako* komentuak izan zuen Probintziako komentu guztietatik zoririk onena. Inbasoreek ez zuten ukitu, eta fraideek komentua uzteko agindua hartu bazuten ere, itxura hutsezko agindua izan zen, eta komunitatean bizitzen jarraitu ahal izan zuten. *Tutera-ko* komentuak ez zuen halako zorionik izan, 1808ko azaroan soldaduen harrapaketa mendeko geratu baitzen. Fraideak 1814an itzuli zirenean, horma huts-hutsak aurkitu zituzten soilik.

Allesbesko komenturekin hobeki portatu ziren frantsesak. Gaizki, ordea, elizako Erretorea eta herriko Alkatea, ez baitzuten onik izan komentua kentzeko dekretua betearazi arte, eta herri-tarrak ere ez asko hobeki, komentuan eta elizan aurkitu zuten probetxuzko edozer lapurtu baitzuten.

Corellako komentua gau batez bakarrik izan zen Frantziako soldaduen kuartel, baina nahiko izan zen guztia lapurtua eta janari gabe uzteko. 1809ko urriaren 28an bete zen komentua uzteko epea. Fraideek adiskide zituzten familietan izan zuten aterpea. Baina komentuak, lau urtean bertan behera utzia egonik, kalte handia izan zuen bere egituretan. Azkenik, 1813ko irailaren 9an bildu ahal izan ziren berriro komentuko bizitza egiteko. *Iruñeko Ikastetxeari* dagokionez, frantziarrek komentua zati bat hartu zuten kuarteltzako eta gainerakoan erlijiosoak bizi ziren eta elizaren zerbitzuan jarraitu zuten, apaiz-janzkera erabiltzen bazuten ere. Hala ere liburutegiko liburu eta artxiboko dokumentu ugari galdu ziren.

Bizkaiko komentuei dagokionez, *Balmaseda*, dagoen lekuan dagoelako, gerrako bi suen erdian gertatu zen eta, beraz, behin eta berriro kanoikadaz joa, hondakin-multzo bat izateraino etorri. Hura berriztatzea, izatez, eraikin berria egitea izan zen. *Islako Basamortuak* bestelako zoria izan zuen: fraideak kanporatuak izan ondoren, Jose Bonapartek Villot Jeneralari saldu zion. Hau monasterioa ongi zaintzen saiatu zen; hala, 1814an fraideak itzuli zirenean, berehala ekin ahal izan zioten eremutar bizitzari. Durangoko borrokaren ondoren (1808-10-31) frantziarrak *Larreako* komentuan sartu ziren eta kuartel bihurtu zuten; ez dago esan beharrik nola aurkituko zuten jabeek gerra amaituta berriro hara etorri zirenean.

Markinako komunitateak asko sufritu zuen bertako fraide bategi Bizkaian zegoen Gobernari frantziarraren aurrean salatu zituelako. Komunitate honi komentua uzteko agindua eman zitzaionean, 22 erlijioso mezako, mezakoak ez ziren 4 anaia eta

Iruñetik etorriak ziren 17 ikasle bizi ziren bertan. Komentua kuartel bihurtua izan zen. Komentu hau zaintzean eta berriztaztean lehen mailan A. Bartolome Santa Teresa predikari ospetsua ageri zaigu; hau, bere sorterrian preso egon ondoren askatasuna lorturik, Markinako Karmelera itzuli zen eta karmeldar bizitza ezarri zuen berriro 1813ko urriaren 4an. *Lazkaoko* komentua ere kuartel bihurtu zuten frantziarrek eta geroago odol-ospitale espainiarrek. Karmeldarrak 1813an itzuli zirenean, inoren etxean hartu behar izan zuten ostatua, harik eta gaixorik gabe, bizitzeko eran jarri eta karmeldar bizitzari berriro ekin ahal zioten arte”.

Ordenak, oro har, beste galerarik ere izan zuen, barne-galera dei genezakeena: erlijioso-bizitzaren galera. Kanpoko bizierara eginda zeuden asko ahaztu egin ziren erlijioso-bokazioaz eta bertan gozo geratu:

“Ordenak Espainian heren bat galdu zuela uste da. Ez bakarrik gerragatik edota hilketengatik, Fernando VII.ak 1814an komentuak beren jabeei bihur zekizkiela eta erlijiosoei haietara itzul zitezela agintzen zuen dekretua eman arren, haietariko asko munduan gelditu zirelako baizik. Eta txarrena hau izan zen: itzuli ziren asko eta asko gogoz kontra itzuli zirela, agintari zibilek edo inguruabarrek beharturik. Munduko bizieraz, laikoen era-koaz, guztiz kutsaturik zeuden. Eta ondorio ezin txarragoak laster batean sumatu ziren komunitate-bizitzan: eguneroko bizitzako diziplina gainbehera zihoan”.

5. Karmel Teresiarraren berrezarpena (1867-1890)

Honela hasten zaigu atal honen sarreratxoa:

“1868ko abuztuaren 14a Karmel Teresiarraren historiako datarik goragarrienetakoa da. Data hau Bizkaiko herri bati loturik geldituko da, Markinari, eta haren historiako egintza garrantzitsuenetakoa ekarriko digu gogora: karmeldar bizitzaren berrezarpena Euskal Herrian eta Espainian, beste nazio batzuetan ere berebiziko eragina izan zuena”. Karmeldar bizitzaren berrezarpe-

na eta Ordenaren bi Kongregazioen arteko batasuna –Italiako eta Espainiako Kongregazioena– bateratsu gertatu ziren, edota hau haren ondoren laster eta eragile berberen bidez eta Markinako Karmel ardatz gisa hartuta.

Hasieran adierazi dugunez, historia hau, orain dela bost urte gaztelaniaz argitaratu zen estudio zabalago baten laburpena da, Julen Urkizak egina. Orain aipatzen ari garen gai honek haren ikerlan zabal eta bikaina lau liburukitan gogoratzen garamatza berez-berez. *Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia entre los fundadores (1867-1882)* du izenburua. Gai hau sakonki aztertu nahi duenak hara jo beharko du ezinbestean. Bestalde, Euskal Herriko Karmeldarren historia honetan, merezi duen garrantzia ematen bazaio ere, labur agertzen da gai hau, idaztean izan den helburuak hala eskatuta.

Izenari buruzko kezka behin eta berriro agertzen du autoreak: “Restauración”, “reimplantación”, “refundación”...? Lau liburuki haietaz idazlan edo iruzkin txikia egin genuenean, honela agertzen genuen puntu hau:

“Zer dela eta *Reimplantación* izena? Egia esan, gure artean *Restauración* izena erabili izan da XX. mendean barrena ia beti eta argitalpen honetan ere, 4. orrialdean, latinezko izenburua honela dator: *Monumenta Restaurationis Ordinis*. Dena dela, *restauración* izen hori ez zen hainbat historialariren gogoko gertatu eta Markinan hasiera izan zuenari *refundación*, *nuevo Duruelo* eta antzeko izenak ematen hasi ziren. Dokumentazioaren biltzaile, ikertzaile eta argitaratzaile izan den Julen Urkizak berak ez zuen egokitzat jotzen *restauración* izena; *VINCULO* izeneko gure arteko barne-argitalpenean hau dio: *Se ha decidido utilizar la expresión Reimplantación en vez de la de Restauración, pues esta palabra está cargada de significados que no corresponden al acontecimiento que se narra en los documentos. Nik reimplantación hitzaren ordezkoa berrezarpena jarri dut euskaraz*”.

6. Probintzia Espainiako gerra zibilean 1936-39

“Maiatzaren lehenengoan Probintziako Kapituluak bildurik zen Larrean. Aurreko egunean, Nafarroako Probintziak, Larrean bildutako kapitulukoek ordezkaturik, omenaldia egin zion bere historiako semerik bikainenari, bosgarren agintaldia amaitu zuen A. Ezekieli. Lehen bozketan, 31 hautesletik 16 botoz doi-doi A. Sergio Santa Teresarena Aldaz izan zen Probintzial berri hautatua.

Bi hilabete eta erdi geroago, gerra zibila piztu zenean (1936-1939), Probintziako lurraldea erdi bi egin zen elkarren aurkako bi zatitan bereizirik. Araba, Logroño eta Nafarroako probintzia zibilek nazionalen alderdira jo zuten eta alde horretako karmeldarren komunitateek normal samar jarraitu ahal izan zuten beren bizitza, baina ez abertzaletzat begiz jota zeuden erlijiosoentzat arrisku gabe. Gasteizkoa izan zen bere bizitza irabiatuena ikusi zuen komentua, ikasleen mobilizazioagatik eta etxearen parte bat kartzelatzako egokitu behar izan zelako.

Gainera, komunitatearen eta ikastetxearen ohiko bizitza eragozten zuena, komentuaeren parte handi bat presoek betetzen zutela zen; gogoan izan behar dugu komentua kartzela normal bihurturik egon zela bost urte baino luzarago (1937-04-12tik 1942-09-18ra).

Eragin handia izan zuen komunitatean militarrek komentuan, komunitatea bizi zen partean eta Priorearen ardurapean, jarri zituzten apaiz atxilotuen etorrerak. Elizbarrutietako apaiz hauei Bizkaitik ekarritako lau karmeldar gehitu zitzaizkien 1937ko maiatzean.

Donostian itxi egin behar izan zuten eliza uztailaren 19an eta ezin ireki izan zuten irailaren 25era arte¹. Markinan erlijiosoak sakabanatu egin ziren; 1937ko apirilaren 27an tropa na-

¹ Donostiako Fraide Karmeldarren Artxiboa A-II-4: JOSÉ MATÍAS DEL SAGRADO CORAZÓN DE JESÚS, *Crónica del Convento de San Sebastián durante la guerra civil de 1936*. Makinaz idatzitako 5 orrialde.

zionalak sartu zirenean, A. Martin Uriarte Priorea eta A. Bautista Legarra atxilotuak eta kartzelara eramanak izan ziren².

Askoz ere larriagoa izan zen Larrean eta Zornotzako Ikastetxean gertatu zena. Nazionalen erasoaren aurrean, A. Rafael Priorea eta A. Jose Domingo Prioreordea Larreako komentuan gelditu ziren nazionalak hara iritsitakoan haien aurrean aurkezteko, inozoki errespetatuak izango zirela uste baitzuten. Baina desgainu handia izan zuten. Maiatzaren 19an A. Roman Urtiaga atxilotu eta fusilatu egin zuten. A. Rafael, A. Jose Domingo, A. Abelino, A. Bizente eta An. Eujenio ere zori berbera izateko arriskuan zeuden. Atxilotu egin zituzten³. Probintzialak estutu egin zituen beren karguak utz zituzten: A. Rafaelek Larreako Priore kargua, A. Jose Domingok Nobizioen Maisu kargua eta A. Martinek Markinako Priore kargua.

Gerra zibila piztu zenean, Begoñako Karmeloko komunitatea 14 erlijioso mezaokoz, Teologiako 34 ikaslez eta 7 Anaia ezmezaokoz osatua zen. Lehenengo Errepublikako gobernuaren mende egon ziren hamaika hilabeteetan eta gero Eusko Jaurlaritzaren mende egon zen denboran, komunitateak komentuan iraun ahal izan zuen eta baita bere etxeko aterpean hartu ere arrazoi bat edo bestea zela eta Santanderko, Gipuzkoako eta Bizkaiko komentuetatik iheska zetozen erlijiosoak. Hauen artean aipatu behar ditugu A. Krisogono Gaztelako Probintziakoa, A. Bruno Burgosko Probintziakoa eta A. Alfonso Aragoi-Valentzia Probintziakoa. Hirurei eman zien Eusko Jaurlaritzak ihesbidea Frantziara joan zitezen.

² *Karmeldarrak Markinan*, 287-296. or.

³ Dokumentu guztiz garrantzitsuak dira A. Jose Domingoren egunerokoa, 1936ko ekainaren 8an hasi eta 1937ko apirilaren 9an amaitzen dena; eta *Relato histórico del convento de Larrea y de las andanzas de su Padre Prior durante la guerra civil de España, 1936-1939*, 148 orrialdekoa, Prioreak berak A. Rafael San Joserenak (Sotero Urionaguena) idatzia. Dokumentu honen originala (gaztelaniaz) eta euskarara itzulita *Karmel* aldizkariak argitaratu zuen (Karmel 2005-4).

Lehen ezusteko garratza komunitatearentzat, armak gordezten zituztelakoan komentua arakatzera 30 gizon armatu agertzeta izan zen. Fronte Popularreko milizianoek komentua hartuko zutelako arriskuaren aurrean, Gobernu Zibilak eta komentuko Priore A. Teodoro Arroitauregik elkar harturik, Eusko Alderdi Jeltzalea ofizialki komentua jabetzea erabaki zen. Baina komentua arakatzeta ezin zitekeen gorabeherarik gabe geldi, handik egun batzuetara (irailaren 21ean), Gipuzkoatik iheska zetozen 60 iheslari hartu behar izan baitzituzten komentuan. Are gehiago: irailaren 23an gudarien lau konpainia etorri ziren eta hauek ere komentuan aterpetu ziren. Baina urriaren 7an Eusko Jaurlaritza ezarri zenean, aterpetuak eta soldaduak irtenaraziz, “eskuindarrak” deitzen zitzaizkien kartzela bihurtu zuten.

1937ko urtarrilaren 4a zorigaiztokoa izango da Bilboren historian. Hegazkin nazionalek hiribilduaren gainera egindako bonbardaketaren mendekuz, jendaldeak amorraren amorruz hainbat kartzelatan indarrez sartu ziren eta defentsa gabeko 208 gizon hil zituzten. Karmeloko presoekin ere beste hainbeste egiten saiatu ziren. Hauek beren buruak defendatu zituzten ahal zuten guztiaz; baina hala ere bost heriotza gertatzea ezin izan zuten saihestu. Liskarraldi hartan fraideak Gaztediko lokalatan, eraikinaren iparraldean, ezkutatu ziren, eta larrialdia igarondoren, elizan mezak ematen jarraitu ahal izan zuten eta komunitateko bizitza bere onera etorri zen.

Bilboko gudaldetik hiru egunera, Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriei esker erlijiosoan eta presoan kalte pertsonalik gabe, komentuko egoera berdina zen, berriro ere kartzela izateko xedatu baitzuten. Eta oraingoan ez preso politiko zibilentzat soilik, baita apaizentzat ere eta hauen artean zen karmeldar talde bat ere⁴.

⁴ Begoñako Karmeloko Karmeldar Fraideen Artxiboa: A-I-16: *El convento del Carmelo durante la guerra civil 1936-1939*. Eta ondorengo hau ere Karmeloko Artxibo berean dago: *Diario de la comunidad de los PP. Carmelitas del Carmelo de Begoña* A-II-5. 1936ko irailaren 12an hasten da, eta zenbait urte-

Santanderren abuztuaren 13an fraideek utzi egin behar izan zuten komentua. An. Ruperto atxilotu eta Neila jaunaren Komisariara eraman zuten; hura desagertu zen eta geroztik ez da haren berririk jakin. A. Atanasio Aginagalderi gauza bera gertatu zitzaion⁵; A. Melkiades Basagoitia eta A. Simeon Ercilla fusilatua izan ziren.

Soto-Iruzen milizianoek komentua itxi egin zuten abuztuaren 6an eta iheslarien babes-etxe bihurtu zuten⁶. Hoz de Aneroko eremutarrek komentutik irteteko agindua hartu zuten irailaren 5ean⁷; An. Jose Migel Sertutxa hilik aurkitu zuten Mungiako errepeide hegalean”.

Nafarroako San Joakim Probintziako hamaika erlijioso kartzelaratuak izan ziren. Haietako batek –A. Leon Arangurenek– heriotza-zigorra zuen gainean eta Franco Jeneralak “Enterado” agindua emana zuen, geroago Bernardino Arroita Jauregiri (A. Teodoro “Txaraka”) esker, gehienbat, pena konmutatu bazioten ere. Hamaika erlijioso hauen berri orain arte ere agertu da aldizkari honetan eta aurrera joko dugu, urte haietan Probintziako buru izan zen A. Sergio Santa Teresarena Aldazen jokaera pixka bat aztertzeraz:

“Garai hartan Nafarroako San Joakimgo Probintziala zen A. Sergiori dagokionez, argi-ilunak agertzen ditu. Argia, Probintziaren eta bertako erlijiosoen alde eliz agintarien, agintari zibil eta militarren aurrean egin zuelako. Horretarako goi-mailako militarren batek eman zion *español doscientos por cien* kalifikatzaileaz, eta Arabako Gobernadore Militarrekin zuen ahaidetasunaz ba-

tan etenaldiak egin ondoren, 1957ko urrira arte heltzen da. Gerrateko eta kartzela izateko okupatua izan zeneko gertakarien berri zehatza dakar.

⁵ A. UNZUETA, “No niegues lo que eres”. *Biografía documental del P. Atanasio del Sagrado Corazón de Jesús (Aguinagalde Aguirreche)*, Vitoria 2001, 195-207. or.

⁶ Boletín Oficial de la Provincia de Navarra, 1 (1925-54) 141-143.

⁷ JUAN JOSÉ DE LA INMACULADA, *El desierto de la Provincia de San Joaquín*, 327-333. or.

liatzen saiatuko da. Iluna, Probintzia barruan Espainiaren aldeko bere gar horrekin bat ez zetozenei eta bidegabeko kondenak⁸ sufritzen zituztenei agertzen zien erdeinua.

A. Ezekiel, kanporantz honen aldeko agertu arren, errezeloz eta urruntasunez hartu zuen: ez zuen bisitatu Agenen Venezia-ko Kapitulu Jeneraleko joan-etorriko bidaian (1937ko apirila); ez zen joan hura ikustera Frantziako erbestetik itzulita bizi izan zen berrogeita hamar egunetan, eta 1938ko irailaren 13an Correllan hil zenean, inolako arrazoirik gabe, aitzakiak atera zituen Nafarroako San Joakim Probintziak eman duen gizonik handienaren hileta-elizkizunera ez joateko.

Horrez gainera, Probintziaren barruan gurutzada nazional txikia egin zuen gutun zirkularren bidez, esaterako, 1937ko uztailaren 30eko edota 1938ko uztailaren 16ko dataz bidalitakoen bidez. Hauetan *guerra santa que comenzó con el pensamiento puesto en Dios y en España* dio. Metropolian egiteaz ez zuen nahiko, dirudienez, eta Probintziak Amerikan zituen komunitateetara zabaldu nahi izan zuen gurutzada; horretarako, Bisitari Bereziaren agiriekin bidali zuen A. Redento Jesus Haurrarena Etxarri. Illapelgo (Txile) komunitateari egindako bisitan utzi zuen aginduak argi erakusten du Bisitariaren alderdikeriazko itsualdia:

Teniendo presente que la Sagrada Congregación de Religiosos ha intervenido en nuestra amada Provincia en los asuntos gravísimos que motivan la presente resolución; y el mandato de N. M. R. P. Provincial Fr. Sergio de Sta Teresa, de que se ponga definitivamente término a toda manifestación contra-

⁸ Ikus A. Santi Onaindiak El Duesoko kartzelatik idatzitako gutuna: S. ONAINDIA, *Oroi-Txinpartak*, Larrea 1988, 280. or. A. Rafael Urionaguenak Probintzial berriari idazten dionean, kexu agertzen da argi eta garbi A. Sergiori buruz ari dela: “en las peripecias tan graves y trascendentales por las que hemos tenido que pasar estos dos últimos años, me veo obligado a confesar que no hemos tenido un Padre en la tierra que nos haya asesorado ni una vez, fijese bien, ni una sola vez, en tan difíciles pasos...” (A. Jose Leon Probintzialari egindako gutuna, Venta de Bañosen 1939ko ekainaren 12an datatua).

ria al glorioso movimiento nacional, encarnado en la persona del invicto caudillo, el general Franco, y, además, por ser dichas manifestaciones de grave escándalo para el pueblo fiel; ordenamos y mandamos en virtud de santa obediencia y bajo precepto a todos los religiosos de esta comunidad que se abstengan en absoluto de hacer manifestación alguna externa de adhesión o simpatía a la causa gubernamental de España dentro o fuera de casa; quedando incluido en dicho precepto todo escrito, toda lectura y toda manifestación oral que lleve en sí o que pueda exteriorizar tal significado... Si alguno se atreviere a infringir este precepto será sometido a gravísimas penas... Diez de abril de 1938.

Hor aipatzen den *causa gubernamental* legezko gobernua-ren kausa da; Franco jenerala legezko gobernu horren aurka altxatu zen.

Halako aginduak, jakinekoa zenez, hainbat erlijioso talderen haserre sortu zuen eta hauek Ordenako Jeneralarengana eta Erlijiosoen Kongregazio Santura⁹ jo zuten. Orduko nagusientzat neurritasun oro, bitarteko jarrera oro susmagarria zen eta, beraz, kondenagarria. Inkisizioaren garaietan bezala”.

7. Probintziako Kapituluak Gobernu Zibilaren presiopean

Giro itogarria sortu zen gerra zibila amaitu berri zela, irabazleek, inork zirkinik egin ez zezan, beldurgarritzko kontrola ezarri zutelako Ordena erlijioso, erakunde eta agintari guztien-gan. Ikus dezagun 1939an izan zen Probintziako Kapituluaren gertatu zena:

Probintziako Kapituluak (1939ko apirila)

“Espainiako gerra zibila amaitu zen hil berean bildu zen Mar-kinan Probintziako Kapituluak. 1939ko apirilaren 29an A. Jose Leon Lopez Maturana, bere joera frankistengatik ezaguna zena,

⁹ FKAP, *Historia Provincia*, 3. kutxa: “Visita canónica del P. Redento a Chile (1938)”.

hautatu zuten Probintzial kargurako. Prioreak hautatzean kontuz ibili behar zen Espainiaren aldekoak ez zirenak ez hautatzeko¹⁰.

Maiatzaren 3ko goizeko ekitaldian zuzen-zuzen ekin zitzaion gai politikoari, eta Kapituluak ondorengo proposamen hau onartu zuen: *a) que no es política hacer patria; que no ofende ni contradice a nuestras leyes ni está reñido con el espíritu religioso defender a la patria, para nosotros la patria española, ni hablar de sus glorias y grandezas; nombrarla con orgullo y honor ante propios y extraños cuando la circunstancias lo reclamaren; b) prohíbe también el Capítulo toda manifestación separatista por considerarla, por consiguiente, contraria a nuestras leyes y gravemente perjudicial al espíritu religioso.* Ontzat jo zuen ondorengo proposamena onartzea ere: *adhesión sincera y entusiasta al Movimiento Nacional*¹¹. Aktetan ez dago erlijioso kartzelatu edo erbesteratuen inolako aipamenik.

Kapituluak ontzat jo zuen ondorengo proposamen hau onartzea ere:

*El Capítulo Provincial de S. Joaquín de Navarra, aceptando plenamente el mensaje de S. S. Pío XII y la carta colectiva del Episcopado Español, presta su adhesión sincera y entusiasta al Movimiento Nacional y a las Autoridades que lo representan, en especial, al glorioso Caudillo Franco; y, en cuanto a él le compete, dispone que sus religiosos presten esta misma adhesión y que en todas sus manifestaciones externas sean consecuentes con estos sentimientos. A la vez, el Capítulo reprueba toda manifestación contraria que cualquier religioso nuestro haya hecho o pudiera hacer en adelante, dentro o fuera de España*¹².

¹⁰ FKAP, *Prep. Gen. 1913-55*: Erroman 1938ko otsailaren 16an datatutako gutuna. Bilboko Gobernaria ere Kapitulura erlijiosoen zerrenda bat bidaltzera ausartu zen, zerrenda hartakoei hautatuak izateko betoa jarritz. Dirudienez, beto honi dagokio Kapituluk kideek isilekoa gordetzeko egindako zina. Ikus *Karmeldarrak Markinan*, 293. or.

¹¹ ACP I, 161. folioa.

¹² ACP I, 161. folioa.

Gainera, adierazgarria da ohartaraztea, nola 161. orriaren azpiko oharrean jartzen duen kapituluko kideek “arazo bat” sekre-tupean edo isilik gordetzea zin egin zutela... Baina zer arazo zen hori? Isiltasun harrigarria; inork ez zuen hartaz ahotik ezer atera nahi izan. Gaur egun Kapitulu hartako partaide guztiak hilak dira. Kasu hura argitzeko, A. Lino Akesolorengana jo zuten; izan ere, Karmeldarren Probintzia ongi ezagutzen zuena, buru eta oroimen argikoa zen. Isilean gordetzeko zina Bizkaiko Gobernu Zibilak Kapitulura bidalitako ohar bati buruzkoa zen. Ohar horretan, edozein kargutarako betoa zuten erlijiosoen zerrrenda zetorren... Beto hori bete egin zen. Orduan ere zurrumuruak eta susmoak zabaldu ziren. Baina datu ziurra, hau da, sekretu honen edukia, zuzenki ezagutu zuen eta Kapitulan partaide izan ez zelako sekretua gordetzea zin egin ez zuen pertsona bakarrarengandik jakin ahal izan da. Begoñako komentuan Bikario gertatu zena dugu hau. Une hartan behin-behineko nagusia zelako, berak jaso zuen Bizkaiko Gobernu Zibilaren oharra eta Markinara helarazi, han baitzegoen Kapitulua bildurik. Hainbat urte geroago, fraide hura hil zenean, A. Linok gai honi buruzko paper bat aurkitu zuen”¹³.

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren eragina; Komentuetako bizitza; Bizitza pastoral eta apostolikoa; Misio-ekintza; Kultura-ekintza (formazioa ikastetxeetan, euskara, aldizkariak, literatura, idazleak...) aztertzen dira azken partean. Pertsonaia aipagarrien eta Karmeldarren komentu eta familien aipamen laburrarekin amaitzen da.

Hona hemen, itzultze-lanetan jardunez, berbertatik ezagutu dudana historia-harian han-hemenka zuretzat bildu ditudanak.

Luis Baraiazarra Txertudi

¹³ A. Lino Akesolok emandako argibideak.